

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

## Gero eta inguratuago

**YOLANDA BARCINA** eta Nafarroako herritar ugari Espainiara begira dira, aspaldi ez moduan gainera. Auzitegi Gorenak erabaki behar du Nafarroako Gobernuko lehendakaria CAN auzian inputatuko duen ala ez. Miguel Sanz, Enrique Maya, Alvaro Miranda eta Enrique Goñi dira orain arteko inputatuak eta Maria Paz Benito epaile nafarraren ustez, badira zantzuak pentsatzeko CANek erosi egin zituela aipatu lau politikariak gehi Barcina lehendakaria. Bai, eroskeria delitua litzateke eta modu horretan Goñik eta CANek saihesten zuten Nafarroako Gobernuak beren jardura fiskalizatzea. Hori guztia noiz, eta CANen desagertze prozesua bideratu den azken laupabost urteetan. Politikarien erosketa, besteak beste, CANeko Entitate Sortzailen Iraunkorreko azpibatzorde ospetsuaren bidez egiten zen.

Zer erabakiko du orain Gorenak? Noizko? Airean da, baina pentsatzen da honek guztiak CAN auzia geldotu egingo duela. Kezkak handiak dira han-hemenka, UPN eta Barcinarenean inputazioak aurrera jarrai dezan, horrek lehendakaria dimisioaren atarian jar dezakeelako.

Kontuz elkarte eta oposizioko alderdietan ere bada beldurra, Madrilen auzia jarraitzea askoz zailagoa zaielako eta han, berau desegiteko edo indargabetzeko aukera eta presio politikoak, handiagoak direlako. Nafarroa gai delikatu eta preziatua da Estatua-arentzat, eta hori presio politikoetatik at gera daitekeela pentsatzea erabat inozoa da.

Bitartean, Nafarroako herritarren artean, sumindurak zabaltzen eta hazten jarraitzen du egunetik egunera. Horren erakusle argia izan



XABIER LETONA

zen iragan larunbatean Iruñean Barcinaren dimisioa eskatzeko egin zen manifestazioa: 10.000-12.000 pertsona izan ziren bertan, kolore eta izaera oso anitzekoak. Nafar gizartean ez da asko arakatu behar herritarren artean haserre oso handia dela antzemateko.

Eta zurrunbilo guztiaren erdian, sarri egiten diren galderak: Noiz arte eutsi ahal izango dio Barcinak dimititu gabe? Noiz arte

tzen utziko du, besterik gabe? Edo zeregin aktiboa hartuko du Gobernuaren erorketan edo zokoratzean? Ikusgai dago, baina PSNk zerbait egin beharko du hauteskundeetara aktiboren bat eramateko, eta hori izan daiteke legealdiko azken urtean egin dezakeen mugimendu garrantzitsua. Hori guztia, jakina, aldeztu aurretik Gorenaren erabakiak Barcina dimititzera behartzen ez badu.

*Euskaldunoi dagokigu erakustea zerk bereizten dituen .es eta .eus, bestela markaren indarrak jai izango du euskaldunontzat*

UPNk? Ez dago erantzun argirik eta hobe ez gehiegi arriskatzea, orain arteko hauteskunde aurreratu iragarpen guztiek porrot egin dute eta. Eta galderak, apirillean Barcinaren aurkako zentzura mozioan gertatu zen moduan, UPNra baino PSNra begiratzea eramaten dute. Nafarroako Legebiltzarren legealdiaren erdia pasa berri denean, PSNk berau agor-

**.EUS** da euskaldunok mundura agertzeko dugun marka berria eta, nahi badugu, eraginkorrenetakoa ere bihurtu daitekeena. Euskal Herrian biltzen garen herritar guztiak bil gaitzake, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, arabieraz edo txineraz mintzo... baina orduan euskaldunoi dagokigu erakustea zerk bereizten dituen .es eta .eus, bestela markaren indarrak jai izango du euskaldunontzat. Erronka bat gehiago egunerokoan sarean euskarazko edukiekin elikatzen aritzen garen guztiontzat. ■

